Irurako udala

ANOETAKO UDALA

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

ANOETA ETA IRURAKO UDALERRIETAN PREBENTZIO KOMUNITARIOA EGITEKO ETA GIZARTE NAHIZ HEZKUNTZA ARLOAN ESKU HARTZEKO ETA ARRETA PSIKOSOZIALA ESKAINTZEKO ZERBITZUA

1.- TESTUINGURUA.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta susttzeko, aurreikusitako, babestek eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean, pertsonei eta harremanei buruzkoak diren pretazio eta Zerbitzuen bidez.

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuetakoak, 5. eta 6. artikuluetan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren inguruko azalpena ematen da non helburuen artean honako hauek jasotzen dituen:

a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egorek pertsonei eta familiei eragiten dizikieten beharrizanei aurre hartu eta erantzutea;

b) Babesganetasun egoerek eragiten dituzten beharrizanei aurre hatu era erantzutea:

c) Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatuz;

d) Larrialdi egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.

Aldi berean, lege berberak 22. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Sistemaren Katalogoaren aipamena egiten du eta Euskal administrazio publikoak eskaini behar dituzten prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak, eta administrazio bakoitzaren eskumenak zehazten ditu.

Gizarte Zerbitzuen euskal sistemako prestazioen eta Zerbitzuen zorroa arautzen duen 185/2015 dekretuak, hau da, 2015eko urriaren 6an onartua izan zenak hainbat zehaztapen egiten ditu prestazio eta zerbitzuei dagokionez. Hala nola, 33. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen katalogoko Zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen antolaketa zehazten du eta bigarren atalean, zehazki, 1.3 puntuan Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean udalek esku hartzeko eskumena

duela azpimarratzen da eta esku hartzea bermatu eta ematea beharrezkoa dela adierazten da.

Era berean, lege hauek ere kontutan izan behar dira:

- 64/2004 Dekretua, Euskal Herriko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta preofesionalen eskubide eta betebeharrak.
- 3/2005 legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzakoa eta babestekoa. 53. artikuluan, oinarrizko gizarte Zerbitzuen esku-hartzearen inguruan mintzo da. Babesgabetasuneko arrisku egoeretako kasuak jaso eta ikerketa, balorazioa eta orientabidea eta beharrezko bada komunitatearen arlotik esku-hartu beharko dute. Haurraren babesgabezia egoera oso larria dela ondorioztatzen bada, esku-hartze espezializatuaren bideratuko da.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia Pertsonala eta Ezinduentzako Laguntza sustatzekoa.
- 12/2008, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuetakoa.
- 230/2011, azaroak 8koa, BALORA Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babaesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.
- 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko tresna.
- 185/2015 dekretua, urriaren 6koa, Euskal Herriko Sistemako prestazio eta zerbitzuak.
- 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal eta lurralde mailako gizarte zerbitzuetan arrisku eta desanparo egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena.

Kontuan izango dira ere:

- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa.
- 64/2004 Dekretua, Euskal Herriko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharrak jasotzen dituena.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- 2016/679 Erreglamendua (EB) 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babestari buruzkoa.

2.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen xedea da, Anoeta eta Irurako udalerrietako “Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua garatzea”, bi udalerrietako oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako irizpide, ikuskapen eta koordinaziopean.

Zerbitzu honen bidez harreman-prestazio indibidualak, familiakoak edo taldekoak emango dira, arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean laguntzeko. Prestazio horiek familairen bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oiarrizko esku-hartzea) zein ingurunekomunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte eta kultura-arloko bitartekaritza) garatuko dira.

Oro har, pleguen xedea zerbitzu hauen adjudikazioa arautzea da:

- Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean, adingabeen babesgabetasun-egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea (bakarka, taldeka edo eta komunitate mailan).
- Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzea, gizarte bazterketa egoera arriskuan dauden pertsona helduei zuzenduta (bakarkaka, taldeka eta komunitataean).
- Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzea, gizarte mendekotasun arriskuan dauden pertsonei zuzendua (bakarka, taldeka eta komunitate mailan).

2.1.- Udalerriak.

Anoeta

Anoeta, Gipuzkoan Tolosaldeko eskualdearen erdialdean kokatua dago non Oria ibaiaren erdiko haranean dagoen. 410km azalera du eta 2.112 biztanle inguru ditu. Kantauri itsasotik 20km-ra dago eta probintziako hiriburutik, Donostiatik, 24 km-ra. Garraio publikoari dagokionez, autobus zerbitzua dago Tolosaldera zein Donostialdera eta tren geltokia herriaren erdigunean kokatua dago.

Irura

Irura, Tolosaldea bailaran dago,Uzturre mendiaren inguruan eta Oria ibaiaren eskuineko ertzean, 3 KM2 azalera du eta 1.900 biztanle inguru. Ondoan, Anoeta, Villabona eta Tolosa ditu. N-1 errepideak herria bitan banatzen du. Autobus zerbitzua: Tolosaldeakoa eta Tolosa/Donostiakoa. Tren geltokia Anoetan dago, 600 metrora.

3.- EDUKIA.

3.1.- Definizioa.

Zerbitzu honen bidez gizarte hezkuntza laguntza eta arreta psikosoziala eskaintzen da banaka, familiekin, talde edo eta komunitate mailan. Zerbitzuaren kokagunea etxebizitza, komunitatea edo ingurune irekian garatu daitezke.

3.2.- Zerbitzuaren helburuak:

Anoeta eta Irurako erabiltzaileei eskainiko zaie zerbitzua honako helburu hauek lortzeko:

a) Autonomia bilakaera, gizartean txertatzea eta familia eta komunitate arloan elkarbizitza egokia lortzeko gaitasun pertsonalak hartu eta garatu dezaten (jarrerak, trebetasunak, ezagutzak, jarraibide, abileziak...).
b) Egokiak ez diren ohiturak, portaerak, sentimenduak, jokaerak eta jarrerak egokiak diren beste batzuengatik ordezkatzea.
c) Familia elkarbizitza hobetzea.
d) Kideen zaintza eta arreta gaitasunak hobetzea.
e) Komunikazio eta harremanetarako gaitasunak hobetzea.
f) Eskubide eta zerbitzuen informazioa eskuratzea erraztu eta bultzatu.
g) Autonomia erraztea edo garatzea.
h) Gizarteratzea erraztea.

Horrez gain:

-Haur eta nerabeen eta gizarte bazterkeri arrisku eta babesgabetasun egoeren baloraziorako ekipoan parte hartzea.

-Udal/komunitate zerbitzu guztiei beharren arabera aholkularitza teknikoa eta orientazioa ematea eta elkarlanean aritzea, komunitatea bera prebentzio eta esku-hartze baliabide izan dadin.

3.3.- Zerbitzuaren hartzaileak.

a) Anoeta eta Iruran bizi diren familiak, babesgabetasun arrisku arinean edo moderatuan aurkitzen direnak

b)Anoeta eta Iruran bizi diren adinez nagusiko pertsonak non bazterketa arrisku arin edo moderatuan aurkitzen direnak.

c) Anoeta eta Iruran bizi diren pertsona adinduak, mendekotasun arriskuko egoeran edo zaurgarritasun egoeran daudenak.

Era berean hezkuntza edo eta laguntza psikosoziala behar dutenei bideratua egongo da:

d) Zerbitzua eragile, profesionalak eta Anoeta eta Irurako herrietako zerbitzuei ere zuzendua egongo da (ikastola, osasun zentroa, denbora librean lana egiten duten eragileak…), adin txikikoak arrisku egoeran, edo eta pertsona helduak bazterketa arrisku egoeran daudenean detektatu, prebenitu eta esku hartzeak egiteko aholkularitza behar dutenean.
e) Zerbitzua, bi udalerrietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu departamenduko profesionalei laguntzeko ere izango da, adin txikikoen babesik eza egoerak eta gizarte bazterketa egoerak ikertzeko eta baloratzeko. (BALORA eta gizarte diagnostiko eta bazterketa balioesteko tresnak erabiliko dira).

3.4.- Eskaini beharreko zerbitzuak.

a. <u>Gizarte eta hezkuntza arloan (eta arlo psikosozialean) esku hartze familiarra:</u>
    - Informazio, aholkularitza, orientazio puntua
    - Babesgabetasin arin edo ertainean dauden adingabeekin eta berain familiekin esku hartzea
    - Familia, guraso... babes eza esparruan taldekako esku hartzea
    - Babesgabetasun egoerak baloratzea
b. <u>Gizarte eta hezkuntza esku hartzea haur eta nerabeekin</u>
    - Komunitate mailan esku hartzea (ludoteka, eskola, bestelako baliabideak…)
    - Taldekako esku hartzea
    - Ingurune irekian esku hartzea
c. <u>Gizarte eta hezkuntza esku hartzea bazterketa egoera edo mendekotasun arriskuan dauden helduekin</u>
    - Taldeka zein banakako esku hatze sozioedukatiboa
    - Komunitate mailan esku hartzea
d. <u>Komunitate prebentzio zerbitzua (sentsibilizazioa eta formazioa hemen barne sartuko zen)</u>

- Sensibilizazioa eta formazioa
- Sare lana
- Ekintza komunitarioak
- Herrietako ekimenetan parte hartzea

3.5.- Esparru geografikoa.

Jarduerako esparru geografikoa Anoeta eta Irura herriak izango dira eta herri bakoitzean erabilgarri dauden eta kontutan izan behar diren eskualdeko baliabide komunitarioak.

4.- JARDUKETA PROZEDURA.

4.1 Zerbitzuaren prestazioa.

Kontratatutako zerbitzua bi udalerrietako oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako departamenduen menpe egongo da, eta garatu behar diren prestazioen koordinazioa eta gainbegiraketa dagokion departamenduko gizarte langilearen esku egongo da.

Gizarte Hezkuntza eta psikosozialeko taldeak zerbitzuari zuzenduriko gune bat izango du. Norbanako, talde, familiei… esku hartzeak udal egoitzetan, etxebizitzetan, inguru irekian, komunitatean edo esku hartzean dauden pertsonen inguruetan gauzatuko da.

4.2.- Esku-hartze mailak.

Zerbitzuak bakarkako, familia eta taldeko esku hartzeak gauzatu behar ditu, eta hauek esparru familiarrean edo komunitarioan garatu ahal izango dira.

- Norbanakoekin. Hartzaileekin edo eta beraien familiekin: gizarte nahiz hezkuntza arloko proiektuak prestatuko dira, hartzaileengan edo eta beren familiengan topatutako zailtasunak kontuan harturik.
- Familiekin.
- Taldeekin. Taldeentzako programak garatuko dira: hauen hutsune edo zailtasunak zuzendu ahal izateko eta hartzaileengan edo eta beren familiengan antzeko trebetasunak eta gaitasunak indartu ahal izateko.
- Komunitatean. Gizarte baliabideekin, hezkuntzakoekin, osasun arloarekin... sarean egiten den lana sustatu eta hobetzeko helburua duten jarduerak garatuko dira, hori erraztuko duten alderdiak edo arrisku-faktoreen prebentzioa sustatuz.

4.3. Esku-hartze prozedura.

Esleipendun enpresak zerbitzuan integratutako prestazio guztiak beharraren arabera garatuko ditu.

Prebentzio mailan - herri bakoitzeko zerbitzu, baliabide eta eragileen arabera, sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzeko egitura zehaztuko du – mahai komunitarioa-, udal gizarte langilearekin batera eta egitura hori osatzean zereginak zehaztuko dira: formakuntza, arrisku egoeren detekzioa, eragileen zereginak, elkarlana,koordinazioa herritar desberdinetara irits daitezkeen ekintzak burutu, balorazioa.

Esku-hartze mailan - Bi udalerrietako oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako erreferentziazko gizarte langileek bideratutako pertsona guztiak artatuko ditu, eta planteatu den Gizarte Hezkuntza eta psikosoziala esku hartzearen helburuak bere gain hartuko ditu. Eta honi buruz eskatzen diren balorazio eta txostenak egingo dira. Jarraitu beharreko jarduera protokoloak, 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuetakoa eta 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan du esku hartze oinarrizko prozeduran oinarria.

- Gizarte Langilearen ardura da beharra jasotzea eta egoeraren diagnostikoa, balorazioa eta esku hartzearen planteamendua burutzea.
- Esku-hartze zerbitzua abiaraztea komeni dela ondorioztatzen bada, erreferentziazko gizarte langileak, pertsona edo familiari azalduko dio esku-hartze zerbitzuaren inguruko informazioa.
- Parte-hartzea onartzen badu, konpromisoa sinatuko du onuradunak, eta Gizarte Zerbitzuetako Sailak zerbitzua kudeatuko du.
- Gizarte langileak ekipoko profesionalekin batera ikerketa-balorazioa egingo du.
- Gizarte Langileak eta ekipoko profesionalek Arreta Pertsonalizatu Plana egingo dute, esku-hartze arloak eta helburuak eta behar duen programa/zerbitzuak finkatuz.
- Kontratatutako taldearen profesionalak zehaztu eta aurrera eramango dute adostutako esku-hartze plana.
- Taldeko profesionalei eta kasua dagokion gizarte langileari dagokie esku-hartzearen eta adostutako helburuen jarraipenak eta ebaluazioa egitea.
- Esku-hartzearen arduradunak onuradunaren egoera sakonki ebaluatuko du, eta koordinatzaileak ebaluazio txostena eta arreta pertsonalizatuko planaren proposamena aurkeztuko dizkio gizarte langileari. (Horretarako gehienez 3 hilabeteko epean). Kasu guztietan, baina batez ere haurren eta nerabeen babaesari dagokionez, ebaluazio txostenean argi eta garbi adieraziko da babesgabezia egoeraren arrisku mailaren izendapena; baita bazterkeria egoeraren arrisku maila edo mendekotasunaren arrisku maila ere.
- Hiru hilean behin, Arreta Petsonalizatuko Plan guztiak berrikusiko dira eta informazioa Gizarte Zerbitzuetako Saileko gizarte langilearekin partekatuko da.

Dena dela, familiaren edo onuradunaren egoera bat-batean aldatzen bada, berehala jakinaraziko zaio erreferentziazko gizarte langileari eta esku- hartze plana berrikusi egin beharko da.

- Esku-hartzea hasten denetik 6 hilabetera, jarraipen txostenak aurkeztuko du esku-hartze zerbitzuak. Jarraipen txostenean argi jasoko da egindako esku- hartzearen inguruko informazio xehea eta lan egiten duten profesional guztien iritzia. Era berean, bertan jasoko dira momentuko arrisku mailaren inguruko balorazioa eta Arreta Pertsonalizatuko Planari dagozkion proposamenak.
- Esku-hartzea amaitu baino hilabete lehenago esku-hartze zerbitzuak azken txostena aurkeztuko du. Bertan, momentuko arrisku maila baloratuko du eta proposamenak egingo ditu.
- Urtero, entitate esleipendunak esku-hartzean egindako lanaren memoria-balantzea burutuko du eta gutxienez puntu hauek azalduko ditu: esku- hartzeen kopurua, esku-hartzeen arrisku maila; artatutako kasuen ordu kopurua esku-hartze mota bakoitzeko; urte guztiko fakturazioa; eta zerbitzuaren zailtasunak, indarguneak eta hobetzeko proposamenak.

5.- EGINKIZUNAK.

a) Entitate adjudikaziodunaren funtzioak. Zerbitzua egoki emateko beharrezko diren bitarteko materialak, teknologikoak eta pertsonalak jartzea; eta lantaldean funtzio eta arduren banaketa argia egitea.

- ✓ Baldintza-plegu honetan zehaztutako jarduera-protokoloa eta ohiko jarduera-protokoloa eta ohiko koordinazioen maiztasuna errespetatu eta betetzea.
- ✓ Onartutako baldintza tekniko eta ekonomikoen arabera, lan-egitasmoa gauzatzea.
- ✓ Mahai komunitarioa lideratuko du.
- ✓ Arrisku egoerak prebenitu eta kudeatuko ditu, herriko zerbitzu, baliabide eta eragileekin.
- ✓ Pertsona, edo familiaren aurkezpena egin ondoren, gehienez 15 eguneko epean dagokion esku-hartzeari ekitea.
- ✓ Arreta Pertsonalizatuko Planen eta Arretako Programanen jarraipen sistematikoa egitea, eta Gizarte Zerbitzuetako Saileko erreferentziazko gizarte langilearekin partekatzea.
- ✓ Kasuaren arduraduna berehala jakinaren gainean jartzea, esku-hartzean aldaketa garrantzitsuren bat gertatzen bada (profesionalen bajak, bizikidetza-unitatean aldaketak, saioetara ez azaltzea…).

- ✓ Ahaleginak egitea persona edo familiaren arretarako esleitutako profesional bera mantentzeko lan prozesua hasten denetik amaitu arte. Salbuespenez, eta egoerak hala eskatzen badu, egin ahal izango dira profesional aldaketak ere. Profesionalak baja hartzen badu, ebrehala ordezkatuko du entitate esleipendunak prestakuntza egokia duen beste profesionalk batekin.
- ✓ Zerbitzua ebaluatzeko, koordinatzea eta jarraipena egitea Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin. Gutxienez honako bilera hauek egingo dira:
    - Urtean behin, zerbitzuaren Zuzendaritzaren eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren arduradunen arteko jarraipen eta ebaluazio bilera.
    - Hiru hilean behin, koordinazio-bilera esku hartze zerbitzuko profesionalarekin eta Gizarte Zerbitzuen saileko erreferentziazko gizarte langilearen artean, zerbitzua osatzen duten programen eta programa horien bidez garatzen ari diren Arreta Pertsonalizatuko Planaren jarraipena egiteko. *** ¿**
    - Kasuaren ardura aldatzen denean (larritasun maila dela eta, edota baliabide espezializatu batean sartu edo handik irten delako), Aldundiaren eta Udalaren artean egin beharreko koordinazio bileretan parte hartzea (beti ere Udaldeko erreferentziazko gizarte langileak egoki baloratzen badu).
- ✓ Hizkuntzari dagokionez:
    - Zerbitzua euskaraz eskaintzea, bereziki haurrei eta nerabeei.
    - Anoeta eta Irurako udalean indarrean dauden euskara irizpideak onartzea eta horiek errespetuz ematea zerbitzua.

b) Gizarte Zerbitzuetako Sailaren eginkizunak.

Erreferentziazko gizarte langileak eginkizun hauek izango ditu:

- ✓ Gizarte Langilea izango da arduraduna zerbitzuaren jarraipena eta ebaluazioa, hobekuntzak proposatzeko eta eginkizunak behar bezala betetzen direla ziurtatzea.
- ✓ Arlo sozioedukatiboan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua egokia ote den baloratzea.
- ✓ Onuradunak motibatzea, zerbitzu hau onartu eta kolaboratu dezaten, horretarako beharrezkoak diren izapideak eginez (parte-hartzeko agiria, ebazpen administratiboa, esku-hartze zerbitzuari informazioa ematea eta aurkezpeneko hitzordu adostea…).
- ✓ Esku-hartze Zerbitzuak egindako ikerketa, ebaluazioa txosten eta proposatutako Arreta Pertsonalizatuko Planak onartzea, jarraipena egitea, ebaluatzea eta egin beharreko aldaketak proposatu.

- ✓ Hiru hilean behin, programen eta esku-hartzeko arreta pertsonalizatuko planen jarraipen bileretan parte hartzea.
- ✓ Esku-hartze zerbitzuaren komunitate-sarea indartzeko eta gizarte-eragileen arteko elkarlana sustatzeko lanketan kolaboratzea.
- ✓ Familiaren arrisku-egoera larria edo babesgabetasunera pasatzen bada, ikerketa txosten berria Haur eta Nerabe gaietarako Eskualdeko Taldera bideratzea, haiek esku har dezaten. Era berean, persona baten bazterkeria egoerak edo mendekotasun egoerak okerrera egiten badu, eta ondorioztatzen bada, dagokion zerbitzu espezializatura bideratuko dira informazioa eta beharrezko eskaerak.

Orokorrean, Gizarte Zerbitzuetako Gizarte Langileak hauteman eta jasoko du eskaera zehatza baina baliteke batzuetan hautemate hori eta eskaera hartzaileak zuzenean ekipoaren bitartez egitea. Era berean, eskaera beste erakunde, profesional edo komunitateko kide batzuengandik ere iritsi liteke gizarte zerbitzuetara. Horrelako kasuetan ekipoko koordinatzaileak Gizarte Zerbitzuetako gizarte langile erreferenteari emango dio horren berri, martxan jarri behar diren jarduerak jartzeko.

Bi udalerrietako Gizarte Zerbitzuetatik datozen esku-hartze eskaera guztiei erantzungo die ekipoak. Gehiegizko lan-zamagatik eskaera horri erantzuterik ez baldin badago, entitate esleipendunak dagokion gizarte langileari jakinaraziko dio eta, gizarte langileak egoera aztertu ondoren, dagokion udal organoari adieraziko dio egoera. Horrelako kasuetan neurriak hartu beharko dira eta lehentasunak finkatu behar badira irizpideak markatuko dira.

6.- BALIABIDE PERTSONALAK. LAN TALDEA.

6.1.- Antolaketa.

Zerbitzuaren emakidunak, plegu honetan aurreikusitako zerbitzuak ahalik eta modurik onenean eman ahal izateko antolamendu eta egitura aurreikusi beharko du, herritarren bizi kalitatearen hobekuntza izango da helburu nagusia.

Plegu honetan zehaztutako zerbitzu bakoitzak beharrezko langile, azpiegitura eta ekipamendu kopurua izango du, era horretan, araudi aplikagarrian xedatutako gutxienekoak beteko ditu zerbitzuak bermatzeko.

Arduradun-koordinatzaile bat izango da lan taldea eta zerbitzuak kudeatzeko.

Lan taldeak behar duen formazioa izango du aurrera eman behar diren zerbitzuak eta funtzioak modu egokian gauzatzeko.

Eskaintzan aurkeztu beharko du, lan taldearen antolaketa, langile bakoitzaren funtzioak zehaztuz, bai arreta zuzenean bai zeharkakoan.

Anoetako eta Irurako udal gizarte zerbitzuak izango dira kontratatutako zerbitzuen jarraipena eta kontrola egingo dutenak, horretarako, zehaztutako mekanismoak erabiliko dituzte eta jarduerak etengabe ikuskatuko dituzte.

Zerbitzua martxan jartzean, enpresak udal bakoitzari, dagokion hilean burututako zerbitzuagatik ekipoaren gastua aurkeztuko dio. Bai eta, hilabetean burutu diren ekintza eta esku-hartze moten agiria.

6.2.- Osaera.

Zerbitzu hau eskaintzeko, esleipedun enpresak, gutxienez, arduradun-koordinatzaile bat, bi hezitzaile eta psikologo bat jarriko ditu. Langile hauek sortutako koste guztiak bere gain hartuko ditu eta inondik inora ez dute Udalarekin lotura administratiborik izango. Udalak, enpresa eta langileen arteko harremanetatik sortutakoetatik kanpo egongo dira.

6.2.1.- Arduradun-koordinatzailea.

Honako eginkizunak bete beharko ditu:

- Zerbitzuaren jarduera gidatzeko gizarte arloko programen eta politiken analisia edukiko du.
- Kudeaketa-tresnen ezagutza eta aplikazioa, ebaluazio eta hobekuntzen proposamenak burutuko ditu.
- Kontratazio ardurak bermatu behar ditu (araudiak menperatuko ditu).
- Ordezkari izango da administrazioaren aurrean.
- Lan taldea gidatuko du.
- Gizarte zerbitzuetako legedi, antolaketa eta tresnen (BALORA, BARE, MBB…) ezagutza edukiko du.
- Esku-hartzeko programak diseinatu, ezarri eta ebaluatuko ditu.
- Pertsonekin, familiekin eta komuniatearekin batera lan egingo du, babesgabezia, bazterkeria eta mendekotasun arriskuko egoeren adierazleak ikertzeko eta egoera horien larritasuna ebaluatzeko, ondoren, arrisku maila gutxitzeko banakako planak proposatu eta adostuko ditu eta gauzatzeko baliabideak aktibatu.
- Programa bakoitzaren jarraipena, garapena eta ebaluazioaz arduratuko da.
- Gizarte-lanaren funtsak, metodologia ereduak eta teknikak aplikatuko ditu, egoerak/arazoak aztertzeko eta gizarte-lanaren jardunbidea pertsona, familia, talde eta komunitateekin gauzatzeko (diagnostikatu, planifikatu eta ebaluatu).

Prestakuntza espezifikoa eta esperientzia ondorengoen bidez frogatu beharko da:

A. Gizarte lanean, edo horren antzeko formazioa duen Giza zientzien alorrean gradua edo diplomatura, lan harremanetan edo zerbitzuen kudeaketan gradua edo zerbitzu soziokulturaletarako Goi mailakoa den lanbide heziketa titulua.
B. Zerbitzuen kudeaketa eta arduradun gisa eta Haur eta Nerabeen babesaren inguruko jarduketa-alorrean lan-esperientzia, gutxienez 12 hilabetekoa.
C. Haur eta nerabeen babesaren inguruko lanetan espefientzia frogatzearekin, gutxienez 12 hilabetekoa.
D. Haur eta nerabeen babesgabezi arriskuaren edo egoeraren maila balortzeko tresna menperatzea (BALORA, EAEn horretarako araututako tresna), bertan jasotzen diren adierazleetan oinarritutako balorazio-txostenak eta esku-hartze planak egiteko gaitasuna adierazten duen erantzukizuneko aitorpen batekin.
E. Bazterketa edo mendekotasun alorrean lan esperientzia eta egoerak baloratzeko tresnen (BARE, MBB) ezagutzea eta menperatzea eta horietan jasotzen diren adierazleetan oinarritutako txostenak eta esku-hartze planak egiteko gaitasuna adierazten duen erantzukizunako aitorpen batekin.
F. Koordinazio, ikuskapen eta kudeaketa lanetan formazioa (gutxienez 100 ordu) edo lan esperientzia izatea (gutxienez 6 hilabetekoa).
G. Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna, eta euskarazko C1 maila.

6.2.2.- Gizarte hezitzailea

Honako eginkizunak bete beharko ditu:

- Arreta pertsonalizatuko planetan jasotako prozesu hezitzaileak garatuko dituzte, eta eskuhartze zerbitzua garatzeko programen eta banakako arreta planen ebaluazio partekatuan lagunduko dute koordinatzailearekin lan-taldean.
- Babesgabezia/mendekotasuna/bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsona, familia edo taldeengan hautemandako premiei erantzuteko gizarte-hezkuntzako programak, proiektuak eta planak diseinatzen lagundu, eta diseinatutako esku-hartze programak edo banakako arreta planak garatuko dituzte.
- Esku-hartze programen eta banakako arreta -planen ebaluazio partekatuan ekarpenak egingo dituzte.

- Babesgabezia/mendekotasuna/bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonekin diharduten komunitateko eragileen (talde profesional…) laguntza eta trebakuntzako premiei arreta berezia eskainiko diete.
- Familietan, taldeetan, baliabideetan, edota zerbitzuetan hautemandako arazoak eta zailtasunak konpontzeko estrategia eta teknika egokienak sortzu ea eta horien erabilera sustatuko dute.
- Hezkuntza-harremanak eta sare sozialak ezartzeko bide ematen duten testuinguruak sortzen lagunduko dute, garapen pertsonala, taldekoa eta komunitatekoa sustatzeko.
- Gizarte errealitatean eta gizarte -hezkuntzako esku-hartzeen eremuetan azterketak eta ebaluazioak egiterakoan eta behar berriak hautematerakoan beren ekarpena egingo dute lan-taldean.
- Gizarte -hezkuntzako esku-hartzea garatuko dute, lanbidearen deontologiaren gako etikoetatik eta errespetutik, oinarri teorikoen ezagutzatik, eta jarduera profesionalaren sostengatzen duten legedia eta politiketatik (gizarte-politikak, hezkuntza-politikak eta kultura-politikak).

Hezitzaile izateko gaitasuna prestakuntza espezifikoaren eta lan-esperientzia bidez frogatu beharko da:

a. Gizarte hezkuntzan, edo horren antzeko formazioa duen eta Gizarte zienzietako den bestelako alorren batean gradua edo diplomatura; edota Zerbitzu soziokulturaletarako goi mailakoa den lanbide haziketa titulua.
b. Haur eta nerabeen babesaren inguruko jardunketa-alorrean, konkretuki, familia esku-hartzean edo arrisku egoeran dauden nerabeekin esku-hartzean lan esperientzia frogatua, gutxienez 12 hilabetekoa.
c. Balorazio tresnen ezagutza erantzukizuneko aitorpen batekin. Haur eta nerabeen babesgabeziaren maila baloratzeko BALORA, bazterkeria egoerak baloratzeko BARE eta mendekotasun maila zehazten duen MBB.
d. Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna, eta euskarazko C1 maila.

6.3.3.- Psikologoa

Honako eginkizunak bete beharko ditu:

Ekipoan adostutako helburu eta lan-planean esku-hartze terapeutikoaren beharra adierazten bada, terapeutaren parte-hartzea bideratuko da. Honako zereginak burutuko ditu:

- Esku-hartze psikologikoak banakakoak edo familiakoak.
- Balorazio-txosten psikologikoak eta diagnostikoak egitea.
- “Kalte emozionala” neurtzea.
- Koordinazioan aritzea, eman zaion kasuarekin.
- Kasuaren ezaugarrien arabera, esku-hartzen duten eragileei irizpideak ematea.
- Eskaturiko bestelako eskaeren esku-hartzeak gauzatzea: mendekotasuna edo eta gizarte bazterkeriari loturikoak beste beste.

Psikologoak gaitasuna prestakuntza espezifikoaren eta lan-esperientzia bidez frogatu beharko du:

a. Psikologian lizentziatua izatea.
b. Psikologia klinikoan espezializatua egotea, edota familiekin esku-hartzeko prestakuntza espezifikoa frogatzea.
c. Psikologia klinikoan edo haurren eta nerabeen babeserako familia esku-hartzeko zerbitzuan lan esperientzia izatea, gutxienez 12 hilabetekoa.
d. BALORA ezagutzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeen babeserako Udal eta Lurralde mailako gizarte zerbitzuetan arrisku eta babaesgabetasuneko egoeren larritasuna balioesteko tresna. Eta, era berean, gizarte-bazterketa baloratzeko tresna (BARE) eta mendekotasun-egoera (MBB) ezagutzea.
e. Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna, eta euskarazko C1 maila.

Enpresak, arduradun bat izango du aholkularitza, orientazioa eta gainbegiraketarako, eta fakturazio eta gai administratiboetarako.

7.- ORDUTEGIA ETA LAN EGUTEGIA

Lan egutegia udal langileen berdina izango da.

Pertsonari arreta goiz eta/edo arratsaldeko ordutegian eskainiko zaio, pertsona/familiaren ezaugarrien eta esku hartzearen arlo eta helburuen arabera.

Prestazioen ordutegia, egin beharreko esku hartzeen araberakoa izango da.
Ordutegia malgua izango da, 08:00etatik-21:00era, dauden beharren arabera.

Salbuespen modura eta beti, gizarte hezkuntza jardueren barruan, beste esku hartze ordutegiak ezarri ahal izango dira.

Gizarte Hezkuntza arlo eta arlo psikosozialeko zerbitzua, urteko hamabi hilabetetan eta astelehenetik ostiralera eskaini beharko da. Ongi arrazoituta eta salbuespen modura, zerbitzua larunbatetan eskainiko da egoeraren behar bereziei erantzuna emanez.

Haurren eta nerabeen interes gorena aintzat hartuta, beraiek parte hartu behar duten saioak programatzerakoan, ahalegin berezia egingo da, eta ahal dela, eskola-ordurik eta eskolaz-kanpoko jarduerarik ez dute galduko.

8.- BALIABIDE MATERIALAK.

Anoeta eta Irurako udalek, zerbitzuaren eta esleitutako enpresaren eskura jarriko dute zerbitzua burutzeko gune bat, hala erabakiz gero.

Enpresak, honakoak jarri beharko ditu:

- Zerbitzuaren prestazio egokia bermatzen duten ekipo eta programa informatikoak.
- Zerbitzura, zuzenean edo zeharka, lotuta dauden profesional guztien eta gizarte zerbitzuetako langileen artean komunikazioa bermatuko duten komunikazio eta kontrolerako baliabide teknikoak (mugikorrak, posta elektronikoa, ordenagailua …)
- Arreta zuzena emateko beharrezko diren beste material eta zerbitzuen gastuak bere gain hartuko ditu. Langileen garraio gastuak barne, herritik kanpora egin beharreko akonpainamendua beharrezkoa balitz …

.

9.- ZERBITZUAREN EBALUAZIO, JUSTIFIKAZIO ETA KONTROL SISTEMAK.

Zerbitzuaren ebaluaketa, 3hilero, 6 hilero eta urtero egingo da.

Esleitutako enpresak aurkeztu beharko duen txosten teknikoan zerbitzuaren ebaluaketa, justifikazio eta kontrol proposamena egingo du.

Behin proposamena balioztatu ondoren, esleitutako enpresarekin adostuko da aurkeztu beharreko dokumentazioa, garatuko diren ebaluaketa mailen arabera:

- Kontratuaren garapen orokorraren ebaluaketa.
- Zerbitzuaren metodología eta antolakuntzaren ebaluaketa.
- Landutako kasuen eraginkortasunaren ebaluaketa.

Aurkeztu beharreko dokumentazioaren barruan honakoak ere jaso beharko dira:

- Enpresak hilero aurkeztuko du esku-hartzeko plan bakoitza gauzatzeko eskatzen diren jardueren eta materialen gastuen justifikazioa.
- Urtero, enpresak jardueren memoria bat aurkeztuko du.

.

10.- SEXU-DELITUEN BERARIAZKO ZIGOR AURREKARIEN ZIURTAGIRIA.

Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa betetzeko –lege hori Haurrak Babesteko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatu zuten-, beren eginkizunak betetzean adingabeekin harremanetan dauden zerbitzuko langile guztien sexu-delituei buruzko zigor-aurrekari espezifikoen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.